

Aretxagazeta



ANDRAMAIXAK04

Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia



Jantzitegi apal tolesgarriekin




Parket flotatzailea



Ateak • Lelhoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak

Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak
Moldurak, sarrailak • Manilak • Egurrezko objetuen pintaketa



AZKARATE
AROTZEGIA

Telleria 19, B-0-2 B-0-3
BERGARA
Tel.: 943 76 47 19
610 884 020



ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka 4, behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA



2004 · 2005

Matrikulazio epea irailaren 6tik 24ra


ingelese | frantsese | alemana

maila eta adin guztiak | eskolak goizez eta arratsaldez


b **berbetan**
HIZKUNTZA ESKOLA

belorrieta 4
20550 aretxabaleta
tel./faxes:
943 79 00 69
bulego ordutegia:
16:00 · 19:00

ATREBENTZIAEZPADA/ Zela fan die aurtengo Andramaixak? Ze baloraziño egingo zeuke?



BEÑAT ZAMALLOA
Gazte Ekimeneko kide




MANOLO ZUBILLAGA
Txirrindulari taldeko kide




NEKANE QUINTAS
Jatetxe sukaldarixe



XABIER SARASUA
Kultura zinegotzixe



JULEN BARANDIARAN
Tabernarixe



MARTIN GARAI
Udaltzainen burue

Baloraziño positibue egin dogu Gazte Ekimenekuok. Guk antolatuteko ekintzetan parte-hartze haundixe egon da, herri kiroletan esaterako 40 bat lagun. Lanien gaitzela argi erakutsi geuen.

Aurtengo lasterketie oso politte izen zan; hasieratik lehiakorra eta bukaerie be politte euki euen. Antolaketie dagokixonez, ondo fan zan dana eta herritarrek oso ondo erantzun euen.

Aurten iñoiz baiño lan gehixau egin dogu guk: bokadilluek diela, kafiek diela... Umiek eta familixak izen diela nausi jaixetan pensau jat eta jai giro oso politte egon dala kalien.

Baloraziño positibue egin dogu, baiñe herritarrek esan biherko daue hori. Ondo pasetako jaixek izen die, adin guztixek kontuen hartute, eta aurten gaztiek antolatuteko ekintzak egon die.

Igezkuiek baiño hobeto, Gazte Ekimenekuek mugittu dielako, eta askatasun haundixau emun biherko leuskie. Nik Andramari egune mantenu eta beste bi egunek fetxaz aldatuko nittuke.

Baloraziño oso ona, jai bezperan zuhaitz pare bat apurtu zittuzten baina besterik ez; gabetan zarata gutxi egon zan orokorrien. Herritarrak formal ibilli zien eta oso giro ona egon zan.

ANDRAMAIXETAKOONENA



TXALOAK AFRIKAKO DOINUAK Beti esan izan da euskaldunok hotzak garela, eta halaxe erakutsi genuen Andramaixetan. Hala ere, Afrikako doinuak ekarri zituen Djambutu Thoissane taldeak giroa berotzea lortu zuen —kostata, hori bai—, eta ikuskizun bikaina erakutsi zuen bai arratsalde partean kalean, bai gauean plazan. /M.A.

ANDRAMAIXETAKODATUAK

120

TXIRRINDULARI GAZTEK HARTU ZUTEN PARTE LASTERKETAN

Leintz Bailarako 66. Itzulia egin zuten Andramaixa bigarrean. 23 urtez azpiko eta elite mailako 120 txirrindularik hartu zuten parte, eta txapelduna Würth taldeko Daniel Navarro izan zen.

32

BIKOTEK HARTU ZUTEN PARTE MUS TXAPELKETAN

Aurreko urteetan baino parte-hartzaile gutxiago hurreratu zen mus txapelketara, 32 bikote. Rico anaiak izan ziren txapeldunak.

ANDRAMAIXETAKOTXARRENA



TXISTUAK HERRI BAZKARIKO ZAPARRADA Herritar ugari hurreratu zen herri bazkariara, baina askok ez zuten zorte onik izan. Gutxi batzuk arroz barik geratu ziren dena bukatu zelako, eta gehienak 15:00ak inguruan bota zuen euri zaparradak harrapatu eta platerak bertan behera utzita, arkupeetara joan behar izan zuten. /M.A.

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETAKO
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA

Mirari Altube

ERREDAKZIOA

Mirari Altube
Zuriñe Velez de Mendizabal

MAKETAZIOA

Alex Azkarate

PUBLIZITATEA

Ziortza Martin

ZUZENTZALEA

Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA

55-378-94

ISSN

1134-2609

TIRADA

2.700 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala




Leintz Gatzagako
Udala



NURR GORTINAK

Gortina eta estoreak
Edredoiak
Funda nordikoak
Izarak
Toallak



Egunez bizi izan zituzten Andramaixak herritar gehienek

Poliki-poliki hurreratu ziren herritarrak jaietara, eta azken egunerako giroa erabat berotu zuten. Gaez baino gehiago egunez bizi izan zituzten Andramaixak.



Ikurrinaren agurrarekin hasi zituzten jaiak, eta bildutakoen artean Herriaren hitza errespetatu! zioen pankarta erakutsi zuten.

Egun beroak tokatu zitzaizkien Andramaixetara hurreratu ziren, herritarrei, eta jai giroa ere egunetik egunera joan zen berotzen.

JAIK, EGUNEZ ETA GAUEZ

Egunez haurrak izan ziren jaietako protagonista, eta ez zuten aspertzeko astirik izan: jolasparkea, buruhandiak, *Katxi batxe de cucina* eta *Munduko arrautzarik handiena* antzezlanak... Kirola gustuko duenak ere hainbat kirol ekitaldi izan zituen: txirrindulari lasterketa dotorea, pilota partiduak eta bolo txapelketak. Gaez egindako ekitaldi batzuek herritar asko batu zituzten: suzko erruberek, *Iturrian zer dago?* ikuskizunak eta Djambutu Thoissane taldearen kontzertuak. Gazteen nahiak asetzeko egitarau alternatiboa antolatu zuten, eta txosnagunean izan zuten topalekua.



BURUHANDIAK UMEEN JOSTAGARRI Erraldoi eta buruhandien kalejirak ume eta gaztetxoek jostagarri izan ziren bai jai bezperan, bai hirugarren egunean. Azken urteotan bezalaxe guraso talde batek hartu zuen buruak ateratzeko ardura, eta giro polita sortu zuten, batez ere azken egunean, txarangaren laguntzarekin.



KIROL EKITALDI UGARI Txirrindulari lasterketak elite mailako eta 23 urtez azpiko txirrindulari ugari batu zituen, eta txapelketa Würth taldeko Daniel Navarro izan zen. Herriko pilotariak ere gustura ibili ziren, eta guztiek jaso zuten saria. Pilotari profesionalak eskaintako ikuskizunarekin, bestalde, pozik azaldu ziren herritarrak.



Loramendi 11. Tel.: 943 79 90 79. ARETXABAETA

Solarium bertikala


Ile-luzatzeak

Estetika zerbitzuak:

manikura,

pedikura,

aurpegiko azala garbitzea....



Errekabarren merkataritza etxea.

Guztia bertan. Guztia Errekabarren kalean.




MARI KARMEN
ZAPATA-KONPONKETA DENDA
943 79 59 85



IRUDI
ILE APAINDEGIA
943 79 80 90





LEINTZ-ROSI
MERTZERIA
943 79 78 63



ERREKABARREN
FRUTATEGIA
943 79 96 43

GRUPO RKUZ

1950
Zure etxea da
2004




ALTZARIAN

Araba etorbidea 20
Te./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABAETA

ETXE MOBEL

Araba etorbidea 5
Te./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE





SUKALDE INTEGRALA

Mitarte 3
Te./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABAETA

ELEKTROGAILUAK

Andramari auzunea
Te./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABAETA



expert

FAGOR



Bigantxari aurrez aurre begiratzen oso gutxi ausartu ziren, horietako bat Egoitz izan zen.



Munduko arrautzarik handiena erakutsi zien Hankagorri taldeak herriko umeei.



EGITARAU ALTERNATIBOA Jai egitarau alternatiboa antolatu zuten Gazte Ekimenak, Aretxak, Segik, Askatasunak eta Batasunak. Hala, rock kontzertuak, karaokea eta bazkaria egin zituzten, beste ekitaldi batzuen artean, txosna-gunean. Azkeneko egunean, bestalde, Euskal Jai gaztetxearen aldeko kalejira egin zuten batukadaren laguntzarekin. Herritar ugari jarraitu zieten, eta giro bikaina sortu zuten kalean.



KOADRILEN EGUNA Aurten ere koadrilak izan dira protagonista hirugarren egunean. Herri bazkari garaian egin zuen euri zaparradak plazako giroa hoztu egin zuen, baina koadrilen arteko jokoek barreak atera zizkieten ikusleei. Txapelduna Zurito taldea izan zen.



Altzariak

Diseinua

Apainketa



Mobiliario
ARENAZA

Bizkaia 1 ARETXABALETA Tel.: 943 79 08 07



Gemes

estetika zentroa

**Oporren ostean,
esku onetan jar zaitez!**

Ilargi plaza 2, Aretxabaleta • Tel.: 943 79 99 18



Jar zaitez profesional
espezializatuen esku.

Zure osasuna gure ardura da.

ERREHABILITAZIO ETA MASAJE
ZENTRUA



ZERBITZUAK:

- ERREHABILITAZIOA
- MASAJE TERAPEUTIKO ETA KIROL MASAJEA
- AKUPUNTURA
- OSTEOPATIA
- ELEKTROTERRAPIA - ULTRASOINUAK
- DRENAJE LINFATIKOA ESKUZ
- GIHAR INDARTZEA
- PODOLOGIA



Partikularrekin eta seguru
etxeekin lan egiten dugu:
(Lagun Aro, Adeslas, Mapfre,
etab.)



Belorrieta 6-7 • 20550 Aretxabaleta • Telf.: 943 79 95 64 • Gipuzkoa

IOSU

harategia taberna

Urdaitegia-gozotegia

•

Kroasantegia

•

Gertatutako janariak



Mitarte 1 • ARETXABALETA • Tel. 943 77 03 08

irudi



Ile apaindegia

*Betiko moduan,
zure zerbitzura*



AZKENEKO JOERAK ILE APAINTZEAN

Errekabarren 20 Aretxabaleta • Tel.: 943 79 80 90

Ze barri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2004ko irailaren 3a / 176. zenbakia



ANDRAMAIXAK04



Ondo pasau Andramaixak!

Gure Ametsa

Ezkontzak
Jaunartzeak
Enpresa bazkariak
Euskal janari tradizionala

Tel. eta faxa: 943 71 49 52
LEINTZ GATZAGA

ALKATEARENAGURRA/ Joxerra Perez

Aurten ere iritsi dira Andramaixak.

Urtebete pasa ostean, balantzea egiteko ordua heldu da, hainbat lan egin dira, eta batzuk ongi beste batzuk, hala-moduz, beti ere gogo eta asmo onenekin Udala osatzen dugun guztion aldetik.

Jai egunak aprobetxatu behar ditugu gatzagarren arteko giro ona sendotzeko, eta agur honen bitartez denon partehar-tzea eskatu nahi dizuet. Guk ahalegin guztiak egingo ditugu, hori horrela dadin.

Gehiago luzatu gabe, ondo pasatu Andramaixak.

Agur bero bat.



JAIETAKO EGITARAUA

Egubakoitza, 3

18:00 Raflen ezkila emanaldia.

Etxafuego, bonba japoniar eta herriko trikitilariekin jaien hasiera.

19:00 Dorletako Santutegian NOBENA.

19:30 TXIKITEOA herriko trikitilari-ek lagunduta.

23:00 Rock kontzertua:

Kontamina Ke Algo Keda
Enboskada
Golpe de Estado
Never Surrender



Zapatua, 4

11:00 Bonba japoniarrak.

11:30 Ume jolasak Gorritirekin.

Arrasateko kiliki eta erraldioen konpartsa, eta Arrasateko Gaiteroak.

12:00 TXIKITEOA Akelarre txarangak alaiturik.

14:30 HERRI BAZKARIA.

16:00 MUS TXAPELKETA Toki-Eder elkartean.

16:00 Haurrentzako JOLASPARKEA. Pendulua, multi pista, ohe elastikoa eta puzgarriak. Bukatzeko, TXOKOLATADA.

19:00 Dorletako santutegian NOBENA.

19:30 TXIKITEOA Akelarre txarangarekin.

23:30 Dantzaldia herriko plazan TRIKIZIO taldearen eskutik.

Domeka, 5

09:30 Txirriindulari lasterketaren hasiera.

12:30 Txirriindularien sari banaketa eta txikiteoa, Arrasateko Gaiteroak taldeak alaiturik.

17:00 Pilota eskolako eta nagusien arteko PILOTA PARTIDUAK.

19:00 Dorletako Santutegian NOBENA.

22:00 Dantzaldia herriko plazan KAIXO taldearekin.

Martitzena, 7

16:00 Dorletako Santutegian, KULKI joko festa.

19:00 Dorletako Santutegian NOBENA, Eskoriatzako parrokiako abesbatzarekin.

Ostean, gazta eta ogia.

Eguaztena, 8

11:30 Etxafuego eta trikitilari-ekin otxandiarrei ongietorria egingo zaie.

12:30 Dorletako Santutegian MEZA NAGUSIA, Eskoriatzako abesbatzaren partaidetzarekin.

13:30 BERTSO SAIOA.

17:00 Otxandiarren eta gatzagarren arteko lehia: pilota partidua, sokatira, txinga eta makila probak.

Musika eta trikitilariak egongo dira.

Ater Be Landetxea
Zelaiakoa baserria
Leintz Gatzaga



Zerbitzuak:

- + Beroegailua
- + Trinbinia
- + T.B. logela gastiatua
- + Internetarako konektzioa
- + Tasa
- + Tinkanduz sauna

- + Tinkatze baimua eta badre masajea
- + Aterden-gela
- + Masajea
- + Atari-aurrea
- + Egongela

**GORA
ANDRAMAIXAK!**



“Eguaztenean gatzagarren eta otxandiarren arteko lehen lehia egingo dugu; polita izango da”

Z.V.M.

Andramaixak lanean igaro beharko ditu Jonak. Hala ere, datozen bost egunetarako antolatutako ekimenetan parte har dezaten dei egiten die gatzagarrei.

Aurten bigarrenez jaiak antolatzen aritu zara.

Bai, eta ez da erraza Gatzaga bezalako herri txiki batean lan hori egitea. Denok ezagutzen dugu elkar, eta badakit bakoitzak zer gura duen. Ez da erraza guztion gustura ekintzak antolatzea, nahiz eta asko saiatu.

Iaz baino errazagoa izan al da lana?

Bai, zalantza barik. Iaz ez zegoen ezer eginda, ni ere galduta nengilaren ekitaldi batzuk lortzeko, esaterako. Iazko eskarmentua mesedegarria izan zait behintzat. Baina datorren urtean herriak jaien antolaketan parte-hartze handiagoa izatea gurako nuke. Izan ere, hasieran jende

asko animatzen da lan hori egitera, baina azkenean...

Zer nabarmenduko zenuke egitarautik?


Zapatuan Umeen Eguna ospatuko dugu. Nahiko berezia izango dela uste dut. Goizean, Arrasatetik etorritako kiliki, erraldoi eta dultzaineroak izango dira gure artean. Ondoren, herri bazkaria egingo dugu. Eguna amaitzeko Trikizio taldea etorriko da, eta giro polita jarriko duela uste dut.

Bestalde, Amabirjina-ren Egunean —irailak 8— herrira etorriko diren otxandiarrekin lehia egingo dugu. Gure arteko harremana sakondu guran antolatu ditugu ekintzak.

Zer da jaietatik gehien gustatzen zaizuna?

Martitzenean Kulki jokoak (herri jolas, joko eta herri kirolak) egingo ditugu plazan, eta oso gustuko ditut. Bestalde, eguaztene-rako antolatutako lehia ere polita izango dela uste dut. Berria denez, modu berezian biziko dut eguna.

Beti hasten dituzue jaiak Raflen ezquila emanaldiarekin.



Ohitura da Andramaxetan Rafle kanpaiak jotzea etortzea. Eskoriatzan bizi baina izatez gatzagarra den gizona da Rafle, eta abila da lan horretan. Betidanik eza-gutu dut ohitura hau.

Aurten ere etorriko al dira Lizaso eta Egaña?

Ez. Azken urteetan bertso saiora beti bi horiek etorri diren arren, aurten ibarreko bost gazte arituko dira giroa alaitzen.

“Raflen ezquila emanaldiak emango die hasiera jaiari”

“Zapatuko Umeen Eguna berezia izango dela deritzot”

“Ibarreko bertsolari gazteak arituko dira”

“Pilota partiduak jende asko erakarriko du”

Azken Nobenak jende asko erakarriko omen du.

Bai, egia da. Gainera, Eskoriatzako abesbatzak kantatuko du bertan. Hainbat tokitatik etorritako lagunekin Santutegia nahiko

txo betetzen da. Ondoren ematen dugun gazta eta ogiak ere laguntzen du giroa sortzen.

Baina ez da jende asko erakarriko duen ekimen bakarra. Izan ere, lehenengo eguneko kontzertura lagun mordoa etortzen da, eta esan liteke jende gehien biltzen den eguna dela. Horretaz gain, pilota partiduetan pilotalekua lepo betetzen da urtero.

Nola biziko dituzue Andramaixak?

Lan egitea egokituko zait nahitaez. Gainera, herri txiki gehienetan gertatzen den moduan, dena egitea egokitzen zaigu. Hasteko, U itxurako plataforma kendu eta agertokia ipini, etxafuegoak bota... Baina ondo pasatzen ere saiatuko naiz.

Zer esango zenieke ZE BARRIko irakurleei?

Nola ez, Andramaixetara datorrenak oso ondo igaro dezala, duda barik. Hala ere, herritarrei antolatutako ekimenetan parte har dezatela esango nieke, herriko jaietan giro polita jartzeko ezinbestekoa baita partaidetza.

GATZA-GAIN Jatetxea

- ◆ Plater konbinatuak
- ◆ Ogitartekoak
- ◆ Espezialitateak:

Baserriko oilaskoa
Etxeko txorizoa eta okela ekologikoa

943 71 40 05 LEINTZ GATZAGA



Ondo ibili Andramaixetan!

estrategia

kontzeptua

garapena

prototipoak

enbalajea

industrializazioa

sormen 
produktuen diseinua

pilar kalea 12
20530 LEINTZ GATZAGA

tel/fax 943.714435
www.sormen.net

Andramaix jai zoriontsuak!!

TXIRRINDULARI LASTERKETA

Gogotsu jarraitzen du lanean Dorleta Txirrindulari batzordeak

Dorletako Ama 26. Txirrindulari Proba egingo dute domekan, eta mendi bizikleta zeharkaldia urriaren 3an

MIRARI ALTUBE

Dorletako Ama 26. Txirrindulari Proba egingo dute domekan 23 urtez azpiko eta elite mailako gazteek. Ez dira iaz beste txirrindulari gerturatu baina lasterketa dotorea izango da.

Leintz Gatzagak oso lotura estua dauka txirrindularitzarekin; izan ere, bertan dago Dorletako Ama txirrindularien zaindaria. Hala, iaz sortu zuten Dorleta Txirrindulari batzordeak lanean jarraitzen du, eta aurten ere lasterketa dotorea antolatu du.

BATZORDEA LANEAN

Iaz, txirrindulari lasterketaren 25. urteurrena ospatu zuten herriko jaietan. Hori horrela, Dorleta Txirrindulari batzordea osatu zuten, eta hainbat ekitaldi antolatu. Taldeak indartsu jarraitzen du; horren adierazgarri, 23 urtez azpiko eta elite mailako gazteek 26. proba egingo dute dome-



Iaz sortu eta osatu zuten herritarrek Dorleta Txirrindulari batzordea, eta gogotsu jarraitzen du txirrindularitzaren alde lanean.

kan, eta urriaren 3an mendi bizikleta zeharkaldia.

Aurten egingo dituzten kirol proba horiez gain, txirrindularitzaren gaineko museoaren jartzeko burutazioa ez dute ahaztuta. Poli-

Aurten egingo dituzten kirol probez gain, txirrindularitzaren gaineko museoaren jartzeko burutazioa ez dute ahaztuta

ki-poliki eta behar bezala gorpuztu gura dute museoaren. Gainera, hemendik urte bira Euskal Bizikletaren etapa bat Gatzagan bukatzeko eskaera eginda dauka batzordeak.

26. TXIRRINDULARITZA PROBA Domekan, irailak 5, Dorletako Ama 26. Txirrindularitza Proba egingo dute 23 urtez azpiko eta elite mailako 80 bat gazteek. 09:30ean hasiko dute lasterketa Gatzagan, eta 12:10 inguruan bukatuko dute herrian bertan. Bi aldiz igo beharko dute Gatzagako mendatea eta mendiko saria lortzeko puntuagarria izango da. "Proba gogorra izaten da Gatzagako mendatea bi aldiz igo eta Gatzagan bukatzen delako, baina polita ere bada", dio Manolo Zubillaga Txirrindulari batzordeko kideak.

Urriaren 3an, ostera, Gatzaga-Gatzaga mendi bizikleta zeharkaldia egingo dute. "Iaz oso eguraldi txarra egin zuen; hala ere, 80 bat parte-hartzaile izan ziren. Aurten, eguraldiak laguntzen badu behintzat, askoz gehiago izango dira", dio Manolok. Edozeinek har dezake parte, eta iaz, nazio mailako probetan ibilitako txirrindulariaren bat edo beste etorri zen. Hortaz, txirrindularitza-zaleek badute zer ikusia egunotan.

JAKIÖN

Deba Garaiko Baserriko Barazki eta Fruta Kontserbak



ONDO PASA JAIXAK!

JAKION S.L. • San Migel plaza 4 etxabea • 20530 Leintz Gatzaga
Tel.: 943 71 46 86 • Faxa: 943 71 30 22 • E-posta: jakion@euskalnet.net



AMABIRJINAREN EGUNA

Otxandiarren bisita izango dute gatzagarrek ohiturari jarraituz

Jende askok jai hartzen du irailaren 8an Gatzagara etortzeko; gehienek oinez egiten dute bidaia

Z.V.M.

Eguaztenean ospatuko da Dorletako Amaren eguna. Ohiturarekin jarraituz, Otxandiotik erromesaldian etorriko dira zenbait lagun. Aurten, hainbat probari aurre egin beharko diete.

Ehun urte baino gehiago dira Otxandioko herritarrek Gatzagara etortzen direla. Amabirjinaren Egunean egiten dute erromesaldia, egun hori gatzagarrekin batera ospatzeko.

Jon Sasiain zinegotziak jakin-mina zuen erromesaldiaren zergatia ezagutzeko. Horretarako, Bizkai aldera joan zen, eta "Otxandioko lagunekin hitz egin eta ez dakite Gatzagara etortzearen jatorria zein den. Herriko nagusienek ere gauza bera erantzun zidaten", adierazi du. "Adineko jendeak herrira etortzean trukea egiten zutela gogoratzen dute; ez erromesaldiaren zergatia", azaldu du Sasiainek. Laboreak eta bes-



Otxandioko lagunek Bizkaitik Gipuzkoarako bidea oinez egiteko ohitura dute; aurten ere horrela izango da.

te gai batzuk ekartzen omen zituzten, eta haiek gatzara eramaten zuten etxera.

OINEZ OTXANDIOTIK GATZAGARA
Ohitura bihurtu da otxandiarrentzat Gatzagara etor-

Otxandioko zaharrenek ere ez dakite erromesaldiaren zergatia zein den; gaur egun ere bizi-bizi dagoen ohitura da

tzea. Adin guztietako lagunak egiten dute joan-etorria; gazte zein helduak gatzara etortzen dira herrira. Oinez egiten dute bidaia, eta nahiz eta aurten Amabirjinaren Eguna eguazte-

nean izan, jende ugari etorriko dela uste dute herritarrek; izan ere, haietariko askok jai hartzen dute irailaren 8an, ohiturarekin jarraitzeko asmoz.

11:30ak aldera iritsiko da eguaztenean bizkaitar koadrila herrira. Gatzagarrek ongi etorria egingo diete etxafuegoak botata.

Mezetara joango dira urtero legez, eta ondoren, bost bertsolari gazte arituko dira euren abilezia erakusten.

Bazkaria ere antolatuko dute eguaztenerako; eguraldi ona eginez gero kanpoaldean egingo dute, Dorletan edo Gatzagan bertan. Euria egingo balu, pilotalekuan izango litzateke.

HERRIEN ARTEKO LEHIA

Enfasi berezia jarri gura izan dute otxandiarren bisita ospatzeko. Horregatik, bi herrien arteko lehia antolatu dute aurten lehenengoz. Pilotan aritu beharko dute, bai eta sokatiran, txinga proban eta makila proban ere. Norgehiagoka polita herritarren arteko hartumana sendotzeko.



Gozatu Andramaixak!


LABIDEA



San Migel plaza 1, 3 20530 Leintz Gatzaga
Tel.: 943 71 47 92



ESKORIATZA



Andramaixetan zatoz geurera

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita
ESKORIATZA

Mendiola auzoa
943 71 43 45



Eskoriatzak 1.273.000 euro jasoko ditu Eusko Jaurlaritzaren eskutik

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Eusko Jaurlaritzaren Izartu programari esker, Eskoriatzak 1.273.000 euro jasoko ditu. Dirua gainbeheran etorritako hirialdeak birgaitzeko erabiliko dute, esaterako. Beste lan batzuk egiteko asmoa du Udalak, lur-azpiko edukiontziak ipintzea, besteak beste.

Eusko Jaurlaritzak zenbait herritan gainbeheran etorritako hirialdeak gizarte eta ekonomia mailan biziberritzeko eta berpizteko laguntzak emango ditu, eta horien berri eman zuen uztaila amaieran; Eskoriatzak ere jasoko du dirulaguntza hainbat lanetarako.

Eskoriatzako Udalak Aranburuzabala kalea eta Dorleta eta Santa Marina auzoak birgaitzeko laguntza eskatu zion Eusko Jaurlaritzari. Udalak aurreikusitakoaren arabera, 4.250.000 euro beharko lituzkete lanok egiteko. Izartu programak %30 eman dio, eta guztira 1.273.000 euro bideratuko dituzte Eskoriatzara.

BESTE LAN BATZUK

Euskal Autonomia Erkidegoko 164 herrik egin zuten eskaera,



Aranburuzabala kalea birgaituko dute, Dorleta eta Santa Marina auzoekin batera.

eta behin horiek aztertuta, 68 udalerrik jasoko dute dirulaguntza. Ibarrean, Antzuolak, Bergarak eta Arrasatek ere parte hartuko dute Eusko Jaurlaritzaren Izartu programan. Eskoriatzan, aipatutako hiru txokoak

birgaitzeaz gainera, beste lan batzuk ere egin gura dituztela adierazi digu Josu Ezkurdia Eskoriatzako Hirigintza zinegotziak. Besteak beste, herri barruan lur-azpiko zenbait edukiontzi eta Eskoriatzako saihebidetan soinu-

hesiak jarri gura dituztela azaldu du. Aurreikusitako daten arabera, datorren urtean hasiko lituzkete Aranburuzabala kaleko lanak. Gainerakoak, berriz, 2008. urtera bitartean egingo dituztela jakinarazi dute Udaletik.



Eguraldia lagun ez eta jende gutxi igerilekuan

Abuztuan eguraldia lagun izan dugu tarteka, baina gehienetan ez dugu horrelako zorterik izan. Hala, Eskoriatzako kanpoko igerilekura lagun gutxi gerturatu dira; gainera, gehienetan eguzkia egin duenetan bakarrik. "Askok nahiago izan dute hondartzara edo urtegitara joan", adierazi digute. Orokorrean seme-alaba gazteak dituzten gurasoak joaten dira. Kirol-instalazioei dagokienez, abuztuan bi mila erabiltzaile inguru joan direla jakinarazi dute. /Z.V.M.

LABUR

Kalamuaren legalizazioa bultzatzeko mozioa

Eskoriatzako Udalak kalamuari buruzko mozioa onartu zuen uztailako azken osoko bilkuran. PSE-EE alderdiko Iñaki Pierrugues zinegotziak aurkeztu zuen proposamena eta aho batez onetsi zuten guztiak. Erabilera pertsonalerako kalamua landatzea, farmazietan saltzeko eta erabilpen terapeutikorako arautzea eskatzen da bertan.

Onartutako erabakia Eusko Legebiltzarrerara eta Diputatuen Kongresura bidaltzeko asmoa du Udalak. Pierruguesen esanetan, "drogekiko politika zapaltzailearekin amaitzeko ordua da, horrek kalitate eskaseko substantzien kontsumo ugaria bultzatzen du-eta, kontsumitzailearen osasunerako arriskua areagotuz". Holanda eta Kanada aipatu zituen, eta bertan gaixoek kalamua eskuratzeko dituzten erraztasunak gogoratu zituen.

Oñatiko hiltegiari buruzko erabakia adostu zuen Udalak

Eskoriatzako Udalak Oñatiko hiltegiari buruz aurretik hartutako erabakia berretsi zuen uztailaren 22an, eta zenbait puntu onartu zituzten bertan.


Batetik, Zubillagako hiltegiaren kudeaketari beste alternatiba bat aurkitu arte, hiltegia zabalik edukitzeko eskara egitea adostu zuten. Bestetik, hiltegiaren azken bost urteetako diru-kontuen berri Mankomunitateak Udalari ematea. Hirugarrenik, zerbitzuari buruzko bideragarritasun ikerketa bat egin dezatela eskatzea adostu zuten bilkura hartan.

Mankomunitateko ordezkariek uztailaren 29an egingo bileran, azaroaren 30a baino lehen bideragarritasun ikerketa bat egitea adostu zuten; hala, besteak beste, Eskoriatzako Udalak gura zena bete zen. Apirilaren 30ean hartuko dute azken erabakia.



SUTAN

- TXIMINIAK
- EGUR-BARBAKOAK
- ESTALDURAK
(Harri landuaren simulazioa poliuretanoan)



Mugitegi industrialdea, B bidea 6

URRETXU

665 737 302



Aretxabaleta okindegia

*Basaben eta Loramendin
gertu eta fin!*

Basabe 2. Tel. 943 77 00 81
Loramendi 6. Tel. 943 77 17 19



Fino

Gizonezkoen ile apaindegia



Leintz Gatzagako Udalak Andramaixa zoriontsuak
opa dizkizue gatzagar guztioi.



LEINTZ GATZAGAKO
UDALA

